

EIC Pathfinder-Transition-Accelerator-ari buruzko ikastaroa



– Datak eta ordutegiak

1.saioa. Azaroak 19, asteartea. 9:00etatik 13:30etara.

2.saioa. Azaroak 26, asteartea. 9:00etatik 13:30etara.

* Bi saioetan parte-hartzea derrigorrezkoa da.

– Formatua

Aurrez aurrekoa.

– Lekua

Berrikuntzaren Euskal Agentzia, Innobasque. Laida Bidea 203.

Bizkaiko Parke Zientifiko eta Teknologikoa, Zamudio.

– Iraupena

9 ordu.

– Plazak

30

– Norentzat

Euskal enpresentzat eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren

Euskal Sistemako eragileentzat soilik:

- I+G+b-ko proiektu europarrak prestatzeko beharra edo interesa dutenak.
- Europako programetan I+G+b proiektuak aurkezten eta prestatzen eskarmentua dutenak.

* Gehienez bi pertsona erakunde bakoitzeko.

Ikaskuntza-helburuak

- Arrakasta-proposamen bat egiteko gaitasunak eskuratzea, lehenetasun politikoekin eta 2021-2024 eta 2025-2027 programa estrategikoekin lotutako irizpideak barne.
- Helburuak, research output, produktua, outcome-a, inpaktua eta Europako Batzordeak espero dituen inpaktu motak bereizteko proposamenak idazteko gaitasuna hobetzen duten ereduak ezagutzea eta praktikatzeta.
- Teknologia lehiakortasun-abantaila jasangarri, produktibitate edo industria-lidergo gisa zehazten ikastea, produktu teknologiko batek merkatuan dituen porrot-akats nagusiak identifikatuz. Negozio-eredua funtsezkoa izan daiteke proposamenen arrakastan edo porrotean.
- Europako Batzordearen ebaluazio-irizpideak zehatz-mehatz ezagutzea eta horiek betetzeko proposamenak nola bideratzen jakitea.
- Teknologia bati lotutako negozio-plan bat edukitzearen garrantzia ulertzea.
- Operazio- eta finantza-gaitasuna koherentziaz defendatzea.
- Ondo bereiztea azpikontratazioa eta ondasun eta zerbitzuen erosketa.

Prestakuntzaren edukia

1. Bikaintasun Atala (EIC Pillar 3):

- Only innovation, what about research? Finantzatuko den ezagutzaren ikuspegia. Radically new technology and interdisciplinary approach!
- Science-towards-technology breakthrough. Artearen egoeraren azterketa baino gehiago. Bideragarritasun teknikoa, ekonomikoa eta komertziala.
- Technology feasibility. Proposatutako aplikazioen baliozkotze teknologikorako urratsak.
- Ideation (Accelerator).
- Development (Accelerator). Berrikuntzaren helburuak eta garapen-egoera.

2. Inplementazio Atala (EIC Pillar 3):

- Lan-plana, baliabideak. Giza taldea.
- KPIak eta milestone teknologikoak eta merkatuan sartzekoak.
- Partzuergoaren kalitatea.

3. Inpaktuaren Atala (EIC Pillar 3):

- PATHFINDER.
- TRANSITION.
- PATHFINDER eta TRANSITION (inpaktu-atala).
- ACCELERATOR.

Norekin



Javier Medina Antón

Qi EUROPE enpresako bazkide-zuzendari nagusia.

Ekonomialaria, finantzen arloan aditua. Energia Negozioetan eta ZNPn Masterra, IESE Business School. Madrilgo Ekonomialarien Elkargo Ofizialeko kidea, Madrilgo Komunitateko enpresa-kontseilari ziurtatua eta EEko Women Leadership programako kontseilaria. 1995az gero bere lanbide-karrera negozio-eredu berriak diseinatu eta estrategikoki garatzera bideratu du (balio-proposamena, kapitalaren modelizazioa eta optimizazioa, prezioan, errentagarritasunak eta kostuak, seed&startup capital, private equity, venture capital,

lehiakortasuna eta produktibitatea); horrez gain, teknologia transferitzeko eragiketak eta I+G+b-aren proiektuak gauzaten ditu (teknologien brokerra, inbertsioen finantzaketa eta analisia, KFD baloratzea eta Venture Capital Method, egituratzea, negoziazioa eta salmenta/aliantzak), eta I+G+b-aren proiektuak idatzi, kudeatu eta justifikatu ere bai, ingurune digitaletan/teknologikoetan/ industrialetan negozio berriak garatzearekin batera (merkatua eskuratzea, aniztea, haztea eta nazioartekotzea). Halakoetan, zuzeneko erantzukizuna du berritu eta produktu eta zerbitzu teknologiko berriak garatzeko orduan.